

GITARRA ESPAINOLEKO ZIKLOA

Cañizares flamenco trío



Fundación BBVA
San Nikolas enparantza, 4 · Bilbo
19:00

2023
22
API

Fundación BBVA

BBVA Fundazioaren helburu nagusietako bat da bikaintasuna sortzen laguntzea eta hura gizartean zabaltzea. Espazio publikoak gero eta gehiago ari dira hartzen ezagutza partekatuaren eta elkarrekintzaren esperientzia ahalbidetzen duten tokizat. Hori horrela, BBVA Fundazioak kultura-programa berri bat programatu du Madrilgo eta Bilboko egoitzetan, eta musika-jarduerak garrantzi berezia hartuko du. Salamancako Markesaren Jauregian eta Bilboko San Nikolas Eraikinean, erreperitorio klasikoa eta musika garaikidea, biak ala biak, entzun daitezke, eta konpositore eta aldi desberdinen arteko lotura-ildoak proposatzen dira. Hori bai, denek helburu bera dute; hots, publikoari nazioarteko aintzatespena duten bakarlariak eta taldeak, espainiarrak edo atzerriarrak, zuzenean entzuteko aukera ematea.

BBVA Fundazioaren kultura-programa hainbat aliantzarekin osatzen da: Guggenheim Bilbao Museoarekin, Bilboko Arte Ederren Museoarekin, Pradoko Museoarekin eta Bartzelonako Joan Miró Fundazioarekin (erakusketa bereziak egiten ditu haiekin); Thyssen-Bornemisza Museoarekin (narratiba digital berriak sustatzen ditu harekin); ABAO Bilbao Operarekin, Gran Teatre del Liceurekin eta Madrilgo Errege Antzokiarekin (horiekin elkarlanean aritzen da munduko koliseo nagusiekin batera ekoitzitako opera-muntaketak aurkezteko); eta Euskadiko Orkestrarekin eta Madrilgo Orkestra Sinfonikoarekin.

Interpretatzaileak

Cañizares Flamenco Trío

Juan Manuel Cañizares, gitarra

Juan Carlos Gómez, bigarren gitarra

Ángel Muñoz, dantza eta kaxoia

Egitaraua

Juan Manuel Cañizares (1966)

Imagen...

...Fantasía

Suite Paisajes de España

1. Cádiz
2. Algeciras
3. Barcelona
4. Córdoba

Lluvia de cometas

Cuerdas del alma


El abismo

Palomas

Cañizares Flamenco Tríok eskainitako kontzertua berdinik gabeko musika-esperientzia bat da, flamenkoaren pasioa eta musika klasikoaren dotorezia konbinatzen dituena. Aparteko hirukotea osatzen dute Juan Manuel Cañizares eta Juan Carlos Gómez gitarristek eta Ángel Muñoz dantzari eta perkusionistak. Hiru musikariek hogeitau urtetik gora eman dituztenez eszenatokiak partekatzen, adiskidetasun-erlazio eta harreman musikal estua daukate, agerian geratzen dena interpretazio indartsu eta hunkigarri guztietan.

Kontzertu honetan, hiru interpretatzaileek, urteetan ikasitako teknika landuari esker, entzuleei eskaini nahi diete, beren musikaren bidez, Espainiako aberastasun historiko eta kultural zabalaren erakusgarri bat. Izan ere, pieza bakoitzak bere istorioa eta esanahia dauka, eta Cañizares Flamenco Tríok forma emango die, entzuleekin lagunarteko esperientzia hunkigarria izateko. Flamenkoak gaitasuna dauka emoziorik sakonenak transmititzeko, eta, kutsatzeko berezkoak dituen erritmoen eta pasioaren bitartez, itsaso ekaiztsu horretan, Cañizares Flamenco Tríok aise eta seguru nabigatzen du.

Emanaldia hasteko, *Imagen...* joko dute, prelude dotore bat, Juan Manuel Cañizaresen ukitu sentikor eta delikatuaren erakusgarri bikaina. Konposizio hori sarrera bikaina da ...*Fantasia* runbarako, Cañizaresek eta Juan Carlos Gómezek gitarra banarekin interpretatutako duten soinu argi eta alairako. Flamenko-disko onenaren MIN Saria eskuratu zuen *El mito de la caverna* (JMC Music Productions, 2018) diskorako konposatu ziren bi piezak. Lan horretan, Cañizaresek islatu zuen orekaren bilaketa bat, argi klasikoaren eta argi-ilun flamenkoaren artean, hein batean Platonen haitzuloaren alegoriak inspiratutako dikotomia. Izan ere, Cañizaresentzat flamenkoa natural bezain inkontzientea da, arnastea bezala: adierazkortasunean eta sakontasunean zeharo oparoa den lengoia flamenkoz beti lagundutako sentimendu bat, nahitaezko inspirazio-iturri ordezkazekin izan zena. Baina, aldi berean, diziplina akademikoaren bitartez teoria musikala ikasi zuen, aukera eman ziona bere etorkizuna zabaltzeko eta oso bestelako mundu musikal batera bidaiatzeko. Zehazki, *El mito de la ca-*



vernán behin betiko egin zuten bat bi alderdi musikal horiek, Cañizaresen musikaren oinarri izango direnak beti. Hori dela eta, *Imagen...* eta *...Fantasía* piezen segida emozioz betetako kontzertu baten aurrerapena da, baita musika klasikoaren eta flamenkoaren arteko orekaren isla garbia ere.

Paisajes de España suitea Cañizaresen maisu-lanetako bat da. Gitarrarako eta orkestrarako konposatu zituen hiru kontzertu sinfonikoren ondorio dira horren pasarteak, eta gaur interpretatuko den bertsioa triorako beziki egokituta dago. Dena den, suitea osatzen duten mugimendu bakoitzaren azterketa musikologikoari ekin aurretik, komenigarria da atzera begiratzea 90eko hamarkadara arte, sorburu duten kontzertu sinfonikoen sorrerara. Musika klasikoaren eta flamenkoaren arteko oreka deskribatzeko Platonen alegoria aipatu dugu; orain, berriz, Homeroren metaforara joko dugu, kontzertu horien konposizioak odisearen itxura izan baitzuen.

1990. urtearen inguruan, Paco de Lucía ahaztezinari Rodrigo maisuaren *Concierto de Aranjuez* grabatzeko proiektua bururatu zitzaion. Diskoa osatzeko, Isaac Albénizen *Iberia* suitearen hiru pieza hautatu zituen: *Triana*, *El Albaicín* eta *El puerto*. Horretarako, eskatu zion gitarra-hirukote bezala egiten ari zen munduko biran laguntzen zion Juan Manuel Cañizaresi konposizio horiek transkribatzeko, hiru gitarrarekin interpretatu ahal izateko. Hori izan zen bere lehen esperientzia pianorako obrak gitarrarako transkribatzen, eta, erronka hain gogoko izan zuenez, 2007. urtean, *Iberia* suite osoa transkribatu zuen gitarretarako. Urte horretan bertan Musikaren Saria jaso zuen *Suite Iberia. Albéniz por Cañizares* lanak, disko klasiko onenaren kategorian. Momentu horretatik aurrera, Cañizaresek jarraitu zuen Espainiako beste konpositore klasiko batzuk ikertzen, hala nola Manuel de Falla, Enrique Granados, Joaquín Turina, Joaquín Rodrigo edota Domenico Scarlatti (italiarra jaiotzez, baina espainiarra bizipenez eta konposizioz). Transkripzioaren etengabeko esperientzia horrek, zalantzarik gabe, bere sakontasun musikala aberastu eta bere barne ikuspegi musikala zabaldu du.



Etengabeko lan hau Cañizaresen lehen urratsa izan zen mundu sinfonikoan. Josep Pons maisuaren ekimenez eta Espainiako Orkestra Nazionalaren enkarguz, gitarrarako eta orkestrarako bere lehen kontzertua konposatu eta estreinatu zuen: *Concierto Al-Andalus, a la memoria de Paco de Lucía*. Bi urtera, gitarrarako eta orkestrarako bere bigarren kontzertua konposatu zuen Bartzelonako eta Kataluniako Orkestra Sinfoniko Nazionalaren (OBC) enkarguz, *Concierto Mediterráneo, a la memoria de Joaquín Rodrigo*. Joaquín Rodrigo maisuari eskaini zion, zenbait urte lehenago mundu sinfonikorako atea ireki baitzizkion *Concierto de Aranjuez* hilezinaren bidez. 2021eko uztailean, Kordobako Gitarraren Jaialdiaren enkarguz, ekitaldiaren 40. urteurrenerako bere hirugarren kontzertu sinfonikoa konposatu zuen: *Concierto Mozárabe para guitarra y orquesta*.

Errepaso historiko horren ondoren, itzul gaitzen *Paisajes de España* suitera. Lehen mugimendua, *Cádiz* izenekoa, erritmo bizi eta alaiko buleria bat da, Ángel Muñozen kaxoiaren soinuaz liraindutakoa. *Algeciras* bigarren mugimenduan, Juan Manuel Cañizaresek bereziki hunkigarria den gitarra-solo bat interpretatuko du, islatzen dituen Paco de Luciarene hilkutxa sorbalda gainean eraman behar izan zuen eguneko sentipenak, artistaren hiletan, Algeciras sorterrian. Adiskidetasun-eta miresmen-sentipenak. Nostalgia-sentipenak. Malenkonia-sentipenak, lagun eta maisu handiarekin partekatzen zituen oroitzapen ugariengatik. Bihotzean jaiotako sentipenak, nota bakoitzean irudikatuak, adagio motel eta triste honetan islatzen dira. *Barcelona* hirugarren mugimenduan, Ángel Muñoz berriz batzen zaio, dantzari gisa, zapateatu ikaragarri batekin, entzuleen gozamenerako. Izan ere, dantza pasional baina estilizatuak mugimenduzko irudi bihurtzen du Juan Manuel Cañizaresen musika-kontzeptu sofistikatu eta soila. *Córdoba* da suitearen azken mugimendua, amaitzeko pieza erritmiko eta hunkigarria. Lehen aipatutako *Concierto Mozárabe* lanetik ateratakoa da, eta garai bateko kalifa-herriko kaleetara eta historiara eramango gaitu melodien eta motibo malenkoniatsuen bidez.



Noches de imán y luna diskorako Cañizaresek konposatu zuen *Lluvia de cometas* runba bi gitarrarekin eta kaxoiarekin joko dute, zuzenean interpretatzeko moldatutako bertsiio batean. Flamenkoaren indarra esperimentatzeko entzuleei egiten zaien gonbidapena da batez ere, hiru interpretatzaileek akorde, nota eta isilune bakoitzean azaltzen dituzten teknikari eta emozioari esker.

Cuerdas del alma da Juan Manuel Cañizaresen konposizioetako melodia bereizgarrienetako bat, ezin flamenkoagoa, hamaika aldiz interpretatu dutena, baina inoiz ez modu berean. Izan ere, interpretatzaileen bat etortze izugarriari esker, aldiro inprobisatu eta lan berri bat eskaintzen dute, baina beti erritmo alaiarekin eta sonoritatearekin, bultzatzen dituztenak entzuleak ere inprobisatzera, askatzera, bat egitera musikarien maisutasunarekin giro musikal inguratzaile eta zirraragarrian.

Azken-aurreko pieza *El abismo* buleria izango da, flamenkoaren zentzu erritmikoaren eta soniketaren adierazpen purua. Abiadura eta zehaztasuna, batez ere, Ángel Muñozen zutikako soloan. Amaitzeko eta gau-emanaldia agurtzeko, *Palomas* izeneko bals flamenkoa entzungo da. Bi gitarra eta kaxoi bat. Hegaldatzera doazen hiru uso. Hasiara leuna, dinamikaren eta inprobisazioaren indarraren gutxikako gehikuntza eta, azkenik, leherketa eta goren unea. Gitarren arteko dialogoa. Flamenkoa bete-betean.

Cañizares Flamenco Tríoren ezaugarri nagusia da musikarekiko pasioa, bai klasikoa, bai flamenkoa. Pasio kutsakor horrek, gainera, partekatzean hartzen du esanahia. Taldeak beti asmo berbera baitauka, interpretazio guztietan entzuleekin partekatzea bizipenak, esperientziak, sentimenduak eta emozioak edo hitz bakar eta magiko batean esanda, musika.

Mariko Ogura

Juan Manuel Cañizares

Gitarra



Cañizares gitarrista eta konpositorea mundu osoko artista flamenkorik garrantzitsuenetako eta ospetsuenetako bat da, zalantzarik gabe, eroso sentitzen dena nola erreperitorio klasikoarekin, hala bere konposizioekin.

Askotariko sariak eskuratu ditu, adibidez, Gitarrako Sari Nazional prestigiotsua (1982), Musika klasikoko interpretatzaile onenaren Musika Saria (2008), Flamenco Hoy Saria (2000, 2011 eta 2013) eta flamenkoko disko onenaren MIN Saria (2019).

Cañizares da Berliner Philharmonikerrek gonbidatu duen flamenko-gitarrista bakarra: Sir Simon Rattle-en gidaritzapean, Joaquín Rodrigoren *Concierto de Aranjuez* interpretatu zuten, Madrilgo Errege Antzokian. Munduko orkestra handienekin kolaboratu du, besteak beste, Staaskapelle Dresdenekin, Tokioko NHK Orkestra Sinfonikoarekin, City of Birmingham Symphony Orkestrarekin, Espainiako Orkestra eta Koru Nazionalekin (OCNE) eta Orquestra Simfònica de Barcelona i Nacional de Catalunyaekin (OBC).

Hamar urtez harreman estua izan zuen Paco de Lucíarekin, baita beste artista batzuekin ere, besteak beste, Enrique Morenterekin, Camarón de la Islarekin, Joan Manuel Serratekin, Alejandro Sanzekin, John Paul Jonesekin, Peter Gabrielekkin, Mauricio Sotelorekin eta Leo Brouwer-ekin.

Konpositore moduan, Espainiako Ballet Nazionalerako lanak eta askotariko filmetarako soinu-bandak sortu ditu. Halaber, igeriketa artistikoko Espainiako taldearentzako 2020ko Tokioko Joko Olinpikoetarako musika konposatu zuen. Ehun diskotan baino gehiagotan kolaboratu du, eta hamabost propio argitaratu ditu.

Bere hiru konposizio sinfonikoak nabarmendu daitezke, daukaten garrantzia dela eta: *Concierto Al-Andalus, a la memoria de Paco de Lucía* (OCNEren enkargua, 2016), *Concierto Mediterráneo, a la memoria de Joaquín Rodrigo* (OBCren enkargua, 2018) eta *Concierto Mozárabe para guitarra y orquesta* (Kordobako Gitarra Jaialdiaren 40. urteurrenerako enkargua).

Juan Carlos Gómez
Gitarra



Askotariko sariak irabazi ditu, besteak beste: Bordón Minero prestigiotsua, Cante de las Minas Nazioarteko Jaialdian (1994); l'Hospitalet Hiria Gitarra Flamenkoaren Nazioarteko Sariketa (1991); Nîmeseko III Concours de Flamenco Guitare, Chant et Danse (1993) eta Madrilgo Círculo de Bellas Artes-en Pavón Antzokiko Kopa (1998).

1987 eta 1992 bitartean, bere maisu nagusi izandako Óscar Herreroaren kontzertuetan parte hartu zuen eta 1992-1996 bitartean Víctor Monge «Serranito»rekin birak egin zituen munduko leku askotan. Manuel de Fallaren *La vida breve* operan kolaboratu du solista moduan, Orquesta de la Comunitat y Cor de la Generalitat Valencianarekin, Lorin Maazel-en zuzendaritzapean.

Gitarra flamenkoaren estudioan espezializatu zen Kataluniako Musikako Goi Eskolan (ESMUC). Han, Juan Manuel Cañizares irakasle izan zuen, eta 2010ean oho-rezko matrikularekin graduatu zen. ESMUCen ikasten egon zen urte horietan, bigarren gitarrista aritu zen, Cañizaresekin batera bikoteetan, hirukoteetan eta laukoteetan.

Bere konposizioetatik, solista gisa sortu dituen sei diskoak nabarmendu daitezke: *Cabalgando* (1995), *Mozárabe* (1997), *En la madrugada* (1999), *La caseta* (2011), *Mussara* (2015) eta *Caminos de arena* (2021). Farandulacis antzerki-konpainiaren *Boscoss endins* obraren soinu-banda ere konposatu du.

Interpretatzaile ibiltzeaz gain, denboraren zati handi bat ematen du musika eta gitarra ikertzen eta irakasten. Gitarrako eta instrumentu-taldeko irakaslea da Bartzelonako Taller de Músics eskolan; gitarrista laguntzailea, ESMUCen; gitarra flamenkoko, l'Hospitalet de Llobegateko Escola Municipal de Música-Centre de les Arts-en; eta gitarra flamenkoko, gitarra klasikoko eta ukelele-taldeko irakaslea, Bartzelonako Escola Municipal de Música Can Fargues-en.

Ángel Muñoz
Dantza eta kaxoia



Sorterri duen Kordoban Inmaculada Luque irakaslearekin zortzi urtez ikasi ondoren, Luis del Río Dantzako Kontserbatorio Profesionaleko ikasle zela, Javier Latorrek zuzentzen zuen Ziryab Danza konpainian sartu zen. Garai horretan, solista aritu zen *La fuerza del destino* koreografia-lanean, eta Europako eszenatoki ugaritara iritsi zen. Zenbait operatan hartu zuen parte, *La traviata* eta *La del Soto del Parral* kasu, eta telesail batean ere agertu zen, Kordobako Arte Flamenkoaren Lehiaketa Nazionalean La Mejorana saria irabazi aurretik 1994an.

Lehen dantzaria izan da maisu handien konpainiatan (José Antonio, Antonio Márquez, Carlota Santana, María Benítez, Antonio Granjero eta Inmaculada Ortega; María Pagés, Lucía Real eta El Camborio; Miguel Ángel Espino). Baita Jorge Pardo musikari handiaren konpainian eta Mario Cortés, Juan Diego Mateos, Víctor Monge «Serranito», Juan Manuel Cañizares eta Paco Peña gitarraren maisuenetan ere.

1999an bere konpainia sortu zuen *Robándole al alma* ikuskizunarekin. Hegoafrikaraino ere eman zuen eta, orduz geroztik, bere konpainiaren emanaldiak uzartu ditu lehen aipatutako artisten ikuskizunekin eta irakasle-jarduerarekin.

Askotariko koreografiak sortu eta estreinatu ditu, adibidez: Juan Manuel Cañizares maisuarekin *Cuerdas del alma*, *Falla por Cañizares*, *Granados por Cañizares*, *Scarlatti por Cañizares*, *Concierto Al-Andalus* eta *El mito de la caverna*; Flamenco Vivo Carlota Santana konpainiarako, New Yorken estreinatutako eta Estatu Batuetan biran ibili diren obrak; eta Paco Peña maisuaren ikuskizun handiak, artean, *A Compás!*, *Flamenco sin fronteras*, *Quimeras*, *Flamencura* eta *Flamenco in Concert*.

Bere ikuskizunen artean nabarmentzen dira lehen aipatutako *Robándole al alma*, *Aroha inspiraciones flamencas*, *Flamencopassion*, *Cinco sentidos*, *Ángeles*, *Ángel del blanco al negro*, *Alma*, *Claroscuro* eta *Iberias*. Erresuma Batuan XVI National Dance Awards sarietan izendatu zuten, koreografia klasiko onenaren kategorian.

www.contrapunto-fbbva.es

Jarrai iezaguzu hemen:



@FundacionBBVA

Kontzertuari buruzko
informazio gehiago:

